

# XXI. menderako bulego judizial berria. Azken erreforma prozesalak

(The New Court Offices of the 21<sup>st</sup> century.  
The Latest Procedural Reforms)

ETXEBARRIA ESTANKONA, Katixa

Euskal Herriko Unibertsitatea  
Zuzenbide Fakultatea  
Zuzenbide Publikoa Saila  
Sarriena, z/g  
48940 Leioa  
katixa.echevarria@ehu.es

BIBLID [1137-1951 (2010), 20; 107-111]

Sarrera eguna: 2010.11.02  
Onarpen eguna: 2010.12.15

**2**009ko azaroaren 4an, Estatuko Buletin Ofizialak lege bi argitaratu zituen: 13/2009 legea, azaroaren 3koa, Bulego Judizial berria ezartzeko legeri prozesala aldatzen duena, eta 1/2009 Lege Organikoa, azaroaren 3koa, Bulego Judizial berria ezartzeko legeri prozesala aldatzen duen legearen osagarria, zeinaren bitartez Botere Judizialaren 6/1985 Lege Organikoa aldatzen den. Bi lege hauek beharrezko aldaketa prozesalak burutzen dituzte XXI. mendeko Justizia Administrazio zalu eta modernoan ezarri ahal izateko. Lan honek aipatutako legeek dakartzaten aldaketak azaltzea du helburu.

**Giltza-Hitzak:** Bulego judiziala. Bulego judizial berria. Erreforma prozesalak. Botere judiziala. Lege prozesalak.

**E**l 4 de noviembre de 2009 se publicaron dos leyes en el Boletín Oficial del Estado: la Ley 13/2009 de reforma de la legislación procesal para la implantación de la nueva Oficina Judicial y la Ley Orgánica 1/2009 complementaria de la Ley de reforma de la legislación procesal para la implantación de la nueva Oficina Judicial, por la que se modifica la Ley Orgánica 6/1985, de 1 de julio, del Poder Judicial. Esas dos leyes llevan a cabo los cambios procesales necesarios para poder establecer una Administración Judicial ágil y moderna propia del siglo XXI. El presente trabajo tiene por objeto explicar los cambios derivados de las mencionadas leyes.

**Palabras Clave:** Oficina Judicial. Nueva Oficina Judicial. Reformas procesales. Poder Judicial. Leyes procesales.

**L**e 4 novembre 2009 ont été publiées deux lois dans le Bulletin officiel de l'État : la Loi 13/2009 de réforme de la législation procédurale pour l'implantation du nouveau Bureau judiciaire et la Loi organique 1/2009 en complément de la Loi de réforme de la législation procédurale pour l'implantation du nouveau Bureau judiciaire, par laquelle est modifiée la Loi organique 6/1985, du 1er juillet, du Pouvoir judiciaire. Ces deux lois mènent à bien les changements procéduraux nécessaires pour pouvoir établir une Administration judiciaire agile et moderne propre au XXI<sup>ème</sup> siècle. Le travail présent a pour objet d'expliquer les changements dérivés des lois susmentionnées.

**Mots-Clés :** Bureau judiciaire. Nouveau bureau judiciaire. Réformes procédurales. Pouvoir judiciaire. Lois procédurales.

---

1. **Bulego judizial berria: edukia eta helburuak.**  
2. **13/2009 Legea, azaroaren 3koa, Bulego Judizial berria ezartzeko legeri prozesala aldatzen duena, eta 1/2009 Lege Organikoa, azaroaren 3koa, Bulego Judizial berria ezartzeko legeri prozesala aldatzen duen legearen lege osagarria. Ekarrirako aldaketak.**  
2.1. 1/2009 Lege Organikoa burututako aldaketak. 2.2. 13/2009 legeak burututako aldaketak. 3. **Azkeneko hausnarketa.**

---

## 1. Bulego judizial berria: edukia eta helburuak

Gizarteak kalitatez, azkartasun gehiagoz eta eraginkortasunez funtzionatzen duen Justizia eskatzen du. Behar honi erantzuteko asmoz, 2001eko maiatzean Justiziaren Erreformatarako Estatuko Ituna ezarri zen; honen helburua argia zen: Justizia Administrazioa modernizatzea eta hobetzea. Honen fruitua 19/2003ko Lege Organikoa, abenduaren 23koa izan zen, 6/1985 Lege Organikoa, uztailaren 1ekoa, Botere Judizialekoa aldatzen zuena, bulego judizialaren antolaketa berria aurreikusiz. Honekin batera, 2009ko azaroaren 4an, Estatuko Buletin Ofizialak lege bi argitaratu zituen: alde batetik, 13/2009 legea, azaroaren 3koa, Bulego Judizial berria ezartzeko legeri prozesala aldatzen duena; eta bestetik, 1/2009 Lege Organikoa, azaroaren 3koa, Bulego Judizial berria ezartzeko legeri prozesala aldatzen duen legearen osagarria, zeinaren bitartez Botere Judizialaren 6/1985 Lege Organikoa aldatzen den. Hiru lege hauek oinarritzko elementuak ezartzen dituzte jarduera prozesala eta jurisdikzionala berrantolatzeko, XXI. menderako Bulego Judizial Berria izango dena osatzen dutelarik. Honela, XIX. mendean ainguratutako eta zaharkitutako egitura judiziala bertan behera uzten saiatzen da eta XXI. mendeko Justizia Administrazio zalu eta modernoaren biderei hasiera ematen zaio.

Bi dira Bulego Judizial Berriak berarekin dakartzan antolaketa-aldaketa iraultzaile honen ardatzak: alde batetik, zaluagoa, kalitatezkoa eta eraginkorra den Justizia lortzea, Justizia Administrazioaren zerbitzupeko baliabide pertsonal eta materialaren arazoizko erabiltzearen bitartez lortuko dena; eta bestetik, epaile eta magistratuei Konstituzioak esleitzen dien eginkizunean, hau da, epaitzean eta epaitua betearaztean, arreta jartzea, beste egiteko batzuen zama kenduz, idazkari judizialek bere gain hartuko dituztenak, hain

zuzen. Erabaki honek Europako Kontseiluaren gomendioei erantzuten die, zeinek guztiz jurisdikzionalak ez diren funtzioetatik epailei deskargatzeko premiatzen duten. Justizia Ministerioaren hitzetan, eskumenen banaketa hau epaile eta magistratuen ahalmen jurisdikzionalaren egikaritzarekiko errespetu handienaz burutu da, eta idazkari judizialei arazorik gabe beren gain har ditzaketen funtzioetatik deskargatzen zaie.

Bulego Judizial Berrian, esleitutako funtzioak, eta epaitegien eta auzitegien baliabide pertsonal eta materialak bi elementuren inguruan berrantolatzen dira: Zuzeneko Laguntzako Unitateak eta Zerbitzu Komun Prozesalak. Lehenengoek zuzeneko laguntza ematen diete epaile eta magistratuei; bigarrenak, aldez, ezein jurisdikzio-organo judizialera adskribituta egon gabe, kudeaketa eta laguntzaren lanak bereganatzen dituzte, lege prozesalen aplikaziotik ondorioztatzen diren jardueretan. Hau dela eta, Zerbitzu Komun Prozesalek lan-zama gehiena jasango dute eta pertsonalaren kopururik handiena izango dute. Hauetariko bakoitzean Idazkari Judizial Zuzendaria dago, Zerbitzu Komun Prozesala kudeatu eta zuzenduko duena.

Bulego Judizial Berriaren ezarpena maiatzaren 4an hasi zen, baina modu progresiboan burutuko da; izan ere, indarrean sartu dena erreforma prozesala izan da. Egia da, Justiziaren eskumenak transferituta ez dituzten autonomia erkidegoei dagokienez, Justizia Ministerioak planifikatuta eta progresiboa den Bulego Judizial Berriaren ezarpen-sistema aurreikusi du. Lehengo fase batean, Entzutegi Nazionalan, Burgosen eta Murtzian –azaroaren hasieran hasi zen martxan jartzen–, eta segidan, Ciudad Realen, Caceresen, Logroñon, Palman, Ceutan eta Melillan. Baina funtzionatzen hasi baino lehen, Ministerioak Zabaltze Plana eta baita Aldaketaren Kudeaketa Osoko Plana ere martxan jarri du modelo berrirantz trantsizioa ahalbidetzeko. Honek formazio, zabaltze eta sensibilizazio jarduketak ekartzen ditu berekin. 2011 eta 2012. urteetan aurreikuspenak eta planak egingo dira estatuko gainontzeko lurraldean ezartzeko. Euskadin, justizia-eskumenak transferituta dituzten autonomia erkidegoetako batek, 2008.ko uztailan Bulego Judizial Berria ezartzeko Antolaketa-Plana onartu zuen, eta ezartze graduala dela aintzat hartuta, Eusko Jaurlaritzak Irunen eta Getxon hasi eta Bilbon amaitzen den ezarpen-egutegia aurreikusi du, non 2013. urtearen urtarrilerako ezartzen hasiko den.

## **2. 13/2009 Legea, azaroaren 3koa, Bulego Judizial berria ezartzeko legeri prozesala aldatzen duena, eta 1/2009 Lege Organikoa, azaroaren 3koa, Bulego Judizial berria ezartzeko legeri prozesala aldatzen duen legearen lege osagarria. Ekarrirako aldaketak**

Ukitu dituen arauen kopurua aintzat hartuta, aipatutako bi legeen onarpena benetan oso garrantzitsua izan da; are gehiago, Estatu espainiarreko antolamendu juridiko prozesalean egindako aldaketarik garrantzitsuenetariko bat izan dela esan genezake. Izan ere, 20 bat legeren aldaketa dakar berekin; horietako batzuk izaera prozesaleko legeak dira, orokorrak (1985eko BJLOa, 1996eko Doako Laguntza Juridikoaren Legea, besteak beste) eta prozesu desberdinei buruzkoak, haien artean, prozesu zibilari buruzkoak (2000ko Prozedura Zibileko Legea, 2003ko Lege Konkurtsala eta Arbitraje-Legea), prozesu penalarri buruzkoak (1882ko Prozedura Kriminaleko Legea, kasu), administrazioarekiko auzi-prozesuari buruzkoa (1998ko Administrazioarekiko Auzi-Jurisdikzioa arautzen duen Legea), eta lan-prozesuari buruzkoa (1995eko Lan Prozedurako Legea). Beste batzuk, aldiz, izaera materialeko legeak dira, zuzenbide pribatukoak (1946ko Hipoteka-Legea eta 1985eko Kanbio eta Txeki Legea kasu) eta baita zuzenbide publikokoak ere (1992ko Administrazio Publikoen eta Prozedura Administrazio Komunari buruzko Legea).

Erreforma ikaragarri honen helburu nagusia hauxe da: idazkari judizialei eskumen prozesal ugariak esleitzea, honela epaile eta magistratuek Konstituzioak emandako funtzioari, hots, epaitze eta epaitutakoa betearazteari, buru-belarri ekin ahal izateko, aipatutako funtzioarekin guztiz lotuta ez dauden lanetatik deskargatzen zaielarik. Hori dela eta, erreforma honen bitartez ukitutako manu askok idazkari judizialaren eskumenei buruzkoak dira.

Onartutako bi legeen artean, 1/2009 Lege Organikoa argitaratzearen ondorengo egunean sartu zen indarrean, 2009ko azaroaren 5ean, hain zuzen ere; 13/2009 Lege Organikoa, aldiz, sei hilabeteko *vacatio legis* baten ondoren, maiatzaren 4an.

## **2.1. 1/2009 Lege Organikoa burututako aldaketak**

Lege honek 13/2009 legeak Bulego Judizial Berria ezartzeko ekarrirako aldaketak osatzen ditu. Aldaketetariko batzuek karrera judizialaren zenbait antolakuntza-alde ukitzen dituzte. Zentzu honetan, legeak kontu desberdinak arautzen ditu: igoyeraren bitartez bakanteen betetzea, zina edo promesa ematea, ordena jurisdikzional eta auzitegi espezializatu desberdinen espezializazioari buruzko arauak –izan ere, beharrezko trebakuntza ezartzen da emakumearen gaineko indarkeri epaitegiatarako–, zerbitzu berezien egoerak, senideak zaintzeagatiko eszedentziak eta aukerazkoak, urteko oporrak, iguera...

Beste batzuek, ordea, jurisdikzio-organoen funtzionamenduan zuzeneko eragina dute. Egia esan, eremu honetan aldaketa garrantzitsuenak lurralde adskripzioaren epaileen sorkuntzan datza. Autonomia erkidego bakoitzaren eremuan karrerako epaileen plaza zehatzak sortuko dira; hauek ez dute epaitegi konkretu batean lanposturik izango, baizik eta Justizi Auzitegi Nagusiaren Presidentearen esanetara geratzen direla, iraupen luzeko absentziak betetzeko edo jurisdikzio-organoei laguntza emateko. Azken aldaketa honek xede zehatza izan du: ahal den neurrian karrera judizialaren kideak ez direnek funtzio jurisdikzionala egikaritzea ekiditea, ordezko epaile eta magistratuen kopurua murriztea, eta bakanteak bizkortasun gehiagoz betetzea.

Beste aldaketa batzuk Bulego Judizial Berriaren ondorioak dira, berau osatzen duten unitate desberdinen artean lanpostuen harremanak arautzen dituenak, besteak beste.

Idazkari Judizialari dagokionez, hainbat dira azpimarratu beharreko aldaketak. Jurisdikzio-organoko gutxi duten barruti judizialean, Zerbitzu Komunak auzitegi konkretu baten zuzeneko laguntzaren unitate bati adskribitutako idazkari judizial baten esku egon daitezke. Bestalde, hemendik aurrera posiblea izango da bistak idazkari judiziala aurrean izan barik garatzea. Kontuan hartu behar dugu erreformaren ondorioz idazkari judizialari funtzio gehiago esleitzen bazaizkio, beharrezkoa zen bista guztien aurrean egoteko beharretik aske uztea. Era berean, idazkari judizialek ordu eta egun baliogabeak balioudun gai ditzakete, eta gainera, hizkuntza ezagutzen duen edozein pertsona gaitu dezakete interprete moduan. Aipatutako funtzioak epaitegienak ziren erreformara arte.

Espainiako ordena penaleko auzitegiei gizateriaren aurkako delituak epaitzeko eskumena esleitzen zaie. Zentzu honetan, aipatutako delituak epaitzeko legeak eskatzen du lotura nabarmen bat Estatu espainiarrarekin, eta gainera, prozesua artxibatu egingo da baldin eta egitate berengatik nazioarteko auzitegi baten edo herrialde eskuduneko auzitegien aurrean prozesua hasita dagoela ageri bada; honetarako, legeak “ikerketa eta jazarpen efektiboaz” hitz egiten du. Hau subsidiariorotasun printzipioaren aplikazioaren adierazpena baino ez da.

Muntagatik hitzeko epaiketaren bitartez, Lehen Auzialdiko Epaitegiek emandako ebazpenen aurkako errekursoak ezagutzeko, Probintzia Entzutegia magistratu bakar batez osatuko da. Aldi berean, 13/2009 Legeak hitzeko epaiketaren gehieneko munta 6.000 eurotara igotzen duenez, ez dira gutxi izango bigarren auzialdian organo kolegiatuaren erabaki barik eratuko diren ebazpenak.

Abstentzio eta errefusatzearen espedientei dagokienez, desberdintzen da ukitutako idazkari judiziala Zuzeneko Laguntzako ala Zerbitzu Komuneko unitate batera adskribituta dagoen, arazoa instruitzeko eta ebazteko epaile edo magistratu arduratua nor izango den zehaztu ahal izateko. Desberdintasun honen oinarria Bulego Judizial Berriaren egitura dago.

Baina 1/2009 Lege Organikoaren nobedade garrantzitsuenetarikoen artean errekurritu ahal izateko gordailua dago. Penaleko eta lan-arloan salbuespen batzuk izan ezik, ordena guztietara errekurritzeko beharrezko gordailua aurreikusten da. Legearen Hitzaurreak adierazten duenez neurri honen xedea oinarri juridikorik gabeko errekursoak saihestea da, baina, egia esan, honek bulego judizialarentzako lan-karga handia ekarriko du, gordailuen izapidetze, itzultze eta gerta daitezkeen jazoeren ondorioz. Legeak aurreikusten du edozein errekurso mota tarteratzeko alde aurretik munta zehatz bat gordailu beharko dela Gordailu eta Kontsignazio Judizialen kontuan, munta errekursoaren arabera izanik. Errekurtoa onartzen denean baino ez da itzuliko, kontrako kasuan, gordailuen muntak doako laguntza juridikoaren eta Justizia Administrazioaren modernizazio eta informatizazioaren gastuetara zuzenduko dira.

## 2.2. 13/2009 legeak burututako aldaketak

Bulego Judizial Berria ezartzeko onartutako aldaketa prozesal gehienak 13/2009 Legearen eskutik datoz. Lege honek honako helburua

dauka: Bulego Judizial Berria deitzen denaren bitartez, Estatu espainiarrean Justiziaren funtzionamendua berriztatzea, bizkortzea eta hobetzea. Antolaketa eta eskumenari buruzko aldaketak hartzen ditu barne, eta batez ere, Prozedura Zibileko Legea ukitzen du, eremu prozesalean duen izaera osagarria izateagatik. Honen aurreikuspenak 2010eko maiatzaren 4an indarrean sartu ziren, eta Bulego Judizial Berriaren zabaltzearen hasiera ekarri du, baliabide pertsonal, material eta teknologikoen antolaketa sistema, epaitegi eta auzitegietan orain arte indarrean zegoen sistema ordezkatzeko duena. Aldaketak asko diren arren, garrantzitsuenak modu argian azaltzen saiatuko gara.

Hasteko, idazkari judizialei emandako eskumenak dira azpimarratzekoak; izan ere, epaile eta magistratuek orain arte burututako funtzioak idazkari judizialei esleitzea izan da aldaketaren ardatza, sententziak bizkortasun gehiagoz eman ahal izateko. Lehen adierazi dugunez, oinarritzko ideia idazkari judizialei funtzio desberdinak ematea izan da, epaile eta magistratuek dagokien eginkizun nagusia burutu ahal izateko: “epaitzea eta epaitua betearaztea”. Honela, erabaki prozesalak, guztiz jurisdikzionala den funtzioa ukitzen dutenean izan ezik, eta izapidetak burutzeko eskumena idazkari judizialei esleitzen zaizkie.

Hauei funtzio desberdinak gehitu zaizkie prozesuaren hasieran, amaitzeko era desberdinetan eta baita exekuzioan ere. Idazkari judizialek dekretuak deitutako erabaki prozesalak eman ahalko dituzte. Ordena zibilean demanda onartzeko funtzioa esleitzen zaio idazkariari, exekuziokoa eta kanbio-prozedurarena izan ezik, ez-onarpena epaileari dagokiolarik; gainera, prozesuaren amaiera dekretuaren bitartez erabakiko du hainbat kasutan: alderdien akordioa ematen denean edo prozesuz kanpoko asetzean. Lehen, epaileak autoz erabakitzen zuen prozesuko amaiera.

Bulego Judizial Berriak teknologia berria hartzen du oinarri, bizkortasun, gardentasun, eraginkortasun eta lanaren arrazionalizazioaren efikazia, baliabideen optimizazio, kudeatzerako erantzukizun eta Administrazioen arteko koordinazioaren irizpidepetan funtzionatzeko. Justizia Ministerioak hasi duen justizia modernizatzeko bidearen gidaria da, honela hiritartasunari kalitatezko zerbitzu publikoa eskaini ahal izateko. Asmo honen ondorioak hauexek dira:

Bisten grabazioa ordena jurisdikzional guztietara zabaltzen da. Orain arte ordena zibilean bistak grabatzen ziren, baina hemendik aurrera ordena penalean, administrazioarekiko

auzi-ordenean eta lan-arlokoan egingo da. Bestalde, lehen aipatu dugunez, ordena zibilean idazkari judizialak ez du bistan presente egon beharko, grabatuaren edo erreproduzitutakoaren egitasuna eta osotasuna bermatu baino ez baitu egingo; legeak berak adierazten du zein kasutan izango den beharrezkoa bistetan presente egotea. Aldi berean, bisten, entzunaldien eta agerpenen grabazioetan, sinadura elektronikoen –edo segurtasun beste sistema baten– erabilpena aurreikusten da, grabatuaren benetakotasuna eta osotasuna bermatuta geratzeko. Honela, grabazioa jasotzen duen dokumentuak idazkari judizialak aintzatetsitako sinadura elektronikoa jaso beharko du, eragin guztietarako aktatzat hartuta. Honetaz gain, akta baliabide informatikoen bitartez egitea ahalbidetzen da; modu honetan, oraindik hain ohikoak eta irakurgaitzak diren eskuz idatzitako aktak erauztea bilatzen da.

Aldi berean, legeak buletin ofizialen argitaratzea, erregelamenduek aurreikusiko dutenaren arabera, baliabide telematiko, informatiko edo elektronikoen ordezkatua izateko aukera aurreikusten du.

Justizia Administrazioaren modernizatzeko gogoarekin bat, legeak enkante judizialen arauketa aldatzen du, idazkari judizialaren zuzendaritzapean puja elektronikoa egin ahal izateko, baldin eta baliabide teknikoak badira. Honek esan nahi du internet bidez enkante judizialean parte hartzea egongo dela, aretoan agerpen fisikoa beharrezkoa ez izanik.

Bestalde, mota guztietako bistak seinalatzeari buruzko arauketa berria jasotzen da. Seinalamenduak Sala eta Atalaren presidentearen edo jurisdikzio-organoaren titularraren irizpideak, beraien lanaren antolaketa orokor edo bista zehatzaren gutxi gorabeherako iraupena aintzat izanik, kontuan hartuko dira. Honela Bista-Aretoa erabilpena optimizatzen saiatzen da.

Hitzezko epaiketaren gehienezko munta 6.000 eurotara handitu da. Bere aldetik, prozesu monitorioaren gehienezko munta ere gehitu da, 30.000 eurotatik 250.000 eurotara. Berankortasunaren aurkako prozesu honen bitartez, kredituak erreklamatzeko gehienezko munta bat mantendu da, Europako prozesu monitorioaren antzera, 1896/2006 Erregelamenduak, 2006ko abenduaren 12koa, Europako Parlamentu eta Kontseiluarena, Europako prozesu monitorioa ezartzen duena.

### 3. Azkeneko hausnarketa

Aipatutako legeek burututako aldaketek kalitatezko Justizia Administrazioaren zerbitzu publikoa lortzeko oinarrizko bidea osatzen dute. Baina ez gara engainatuko, dakartzaten hobekuntzak, epaitegiek izan ahal dituzten baliabide pertsonalen menpe daude. Horregatik, hain beharrezkoak diren aurrerapenak administrazio eskudun bakoitzaren ahalmen antolatzaile, tekniko eta aurrekontuaren arabera izango dira. Seguruenez, ez litzateke ausarkeria izango esatea aldaketek ekarriko duten antolaketaren iraultza ez dela, ez hain ikusgarri, ez hain berehalakoa izango. Bulego Judizial Berriaren xedea Justizia Administrazioaren funtzionamendurako beharrezko baliabide pertsonal eta materialaren arrazionalizazio eta optimizazioa bada ere, egia esan, optimizazio hori Autonomia Erkidego bakoitzak Justizia Administrazioari zuzentzen dion zenbateko ekonomikoaren menpe izango da. Honi gehitzen zaio gaur egungo egoera ekonomikoa ez dela onena baliabide material eta pertsonaletan hain inbertsio handia behar duen berrantolaketa bat burutu ahal izateko.

Bestalde, pertsonal jurisdikzionalaren eta idazkari judizialaren arteko eskumenen banaketaren oinarrizko ideia hauxe izan da: eskumen prozesalak idazkariari esleitzea eta jurisdikzionalak epaile eta magistratuei. Dena dela, ez dugu ahaztu behar prozesuan zehar oso zaila dela egintza prozesal eta jurisdikzionalen artean desberdintzea, beraz, ezberdintasun hori nekez eraman daiteke legera. Prozesuan zehar hainbat intzidente gauzatzen dira, zeinetan epaile edo magistratua ezin den kanpo geratu.

Urte batzuk itxaron baino ezin dugu egin, ea XXI. mendeko Bulego Judizial Berria errealitate bihurtzen den.